



**I. Lore eta landare azoka arrakastatsua-** Eremuko ekoizleen produktuen salmenta sustatu eta larunbat goizetan herriko erdigunea biziberritu asmoz, I. Lore eta landare azoka egin zuten Okendon Lasarte-Oriako Udala eta Behemendi Landa Garapenerako Elkarteak elkarlanean antolatuta. Eguraldi onak lagundu egin zuen eta herritar mordoska hurbildu ziren plazan kokatua zeuden zazpi postuetako zuhaixka, kaktus, bonsai, landare exotiko etab. begiratu eta eroatera. Haurrentzako ekin-zak eta jolasak ere egin ziren eta lagun giro ezinhobean aritu ziren uztai edota bolatxoekin jolasean egun honetarako antolatutako zelaixoetan. Adin guztietako jendea hurbildu zen lore eta landareak ikustera. Batzuek kuriositatez begiratzen zituzten lore berezienak, argazkiak ere ateratzen aritu ziren batzuk; beste batzuek berriak, ideiak garbi zekartzaten etxetik eta saltzaileekin tertulian aritzeko aprobetxatu zuten landareen nolakotasunen inguruan. Finean, Okendo plazak itxura ederra hartu zuen larunbat eguerdian, jendetza, eguzki printzak eta landareen koloreak batuta, herria bizitasunez jantzi zen.

**4 UDALTOP**  
**Udal Euskara Zerbitzuen V. Topaketa herrian**

Apirilaren 25 eta 26an egingo da V. Udaltop jardunaldia Manuel Lekuona kultur-etxean. Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuak antolatuta, "Nola aktibatu herritarrak udalarekin euskaraz jarduteko? Zer eta nola egin, euskaraz ikus gaitzaten" gaia landuko dute.

**2 KULTURA**  
**I. Musika Astea amaitu da, herria musikaz busti ostean**

I. Musika Asteak momentu, emozio, bizipen eta batez ere doinu ugari utzi ditu herrian asteburu osoan zehar. Ruper Ordorika bakarlaria, White Storm eta Octopus taldeak, Ana Belen Garcia organo-jolea eta "Biolin majikoa" antzerki musikatua izan dituzte herritarrek gozagarri.



**Ostiralean apirilaren 26an, ez da TXINTXARRI-rik argitaratuko. Jarrai gaitzazu txintxarri.info web orrialdean edo facebook edo twitter kontuetan.**

**Pizzeria Bar Jatetxea Rummy**

**Giro berria, jende berria, Lasarte-Oria herriko pizzeri berrian**

Eguneko menua  
Pizzak  
Hamburgesak  
Pintxoak

Etxean egindako masak

**Kale Nagusia 71**  
**20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 245565**

**Bideo Lagunak -10%**

**TIEN 21**

Etxekotesna elektrikoetan adituak

Eskaintza gehiago Facebook-ean, Jarrai gaitzazu!

**Erakusketa aldaketarengatik likidazioa**

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)



Ruper Ordorika kantuan, bakarka eskainitako kontzertuak aho-zapore ona utzi zuen ikusleen artean.

## Musikak hartu du herria

I. Musika asteak momentu, emozio, bizipen eta batez ere doinu ugari utzi zituen Lasarte-Orian asteburu osoan zehar

**Ruper Ordorikaren kontzertuarekin ekin zitzaion Musika Asteko asteburuko egitaraua beteari. Oñatiarraren kontzertuaz gain, Pasaia Musikaleko taldeen doinuez gozatu ahal izan zuten herritarrek larunbatean, eta igandean berriz, proposamen bikoitza; eguerdian Ana Belen Garciaen organo kontzertu ederra Brigidetan eta arratsaldean, kultur etxeko aretoan, "Biolin magikoa" antzerki musikatua izan zituzten herritarrek gozagarri.**

**S**ona handiko abeslaria da Ruper Ordorika, Euskal Herri osoan ezaguna. Baina ikuslea ez dago ohituta oñatiarra eskenatokian bakar-bakarrik ikustera, bere gitarra makulu bakartzat hartuta. Normalean, taldekideen laguntzaz kontzertu indartsuak eman ohi ditu, baina formatu honekin, emanaldi intimoagoa egiteko aukera izan zuen kultur-etxean bildu ziren 160 ikusleren aurrean.

la ordu eta erdi iraun zuen kontzertua izan zen, etenik gabea. Nabari zitzaion gustura zegoela, Lasarte-Oriara azken aldiz "duela hemezortzi urte" etorri zela gogoratuta, berriro ere hemen jotzea "plazer handia" zela aitortu zuen.

Hamairu abestiko erreperitorioan, ez zituen bereziki kanta ezagunenak jo, baina Ordorikaren ahots sendo eta bakarrak publikoa gatibu hartu zuen hasieratik bukaerara arte.

Jendea ez zen hamahiru kantekin asetu ordea eta "Beste bat! Beste bat!" eskatu zioten ozen txantxikuari. Honek, txalo zaparrada esker-tu eta bis bat egin zuen "Martin Larralde" kanta ezagunaz eta "Ama Euskadi" abesti xiberotarrak. Horrela esan zion agur Lasarte-Oriari, osteraitzuteko esperantzaz.

Larunbat arratsaldean berriz, Pasaia Musikaleko ikasleez osatutako Octopus eta White Storm taldeek Coldplay, The Beatles, Oasis edota Sorotan Bele taldeen obrak bertsionatu zituzten.

### Igandean aukera bikoitza

I. Musika Astea proposamen bikoitza amaitu zuten herritarrek. Eguerdian, Ana Belen Garcia organo-jole trebatuak kontzertua eskaini zuen Ama Brigitarren komentuan 40 ikus-entzuleren aurrean.

la 100 urte dituen organoari doinu goxoak ateratzeaz gain, Garciak berak teklatu, botoi, pedal etab.en nolakotasunak azaldu zituen, kontzertu musikal hutsa izateaz gain, didaktikoa ere izan zen emanaldian. Gehienbat XVII. eta XVIII. mendeko autoreen obrak interpretatu zituen, kantu emankorrak, izan ere garaiko konpositoreek mundu osoko musikez elikatzeak aukera izan baitzuten egiten zituzten bidai luzeen bidez. Garciak herritarren berotasuna nabaritu zuen obra bakoitzaren ostean jasotzen zuen txalo-zaparrada bakoitzaz.

Arratsaldean berriz, herritako hurrek "Biolin Magikoa" antzerki musikatua ikusteko aukera izan zuten. Musikaren historia eta istorioez ikasi eta gozatzeko aukera eduki zuten bi aktoreen ahots eta biolin baten doinuen laguntzaz.



White Storm eta Octopus Pasaiaiko Musika Eskolako ikasleen konbo taldeak.



Ana Belen Garciaen kontzertua pantaila bidez jarraitu zuten herritarrek.



Tomas Ruti, Aitor Fernandez eta Jon Garagarza herritarren "Biolin magikoa" obra.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



#### Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Ttakan Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

#### Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

#### txintxarri

#### Eredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,  
Maider Azumendi, Jon Altuna E.  
txintxarri@txintxarri.info

#### Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Armuti,  
Asier Odriozola, Jone M.  
Hernandez, Oihana Salazar,  
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amador

# Liburuaren Eguna, asteartean

Sasoeta eta Landaberri ikastoletan aukeratutako testuen irakurketak egingo dituzte eta Ixabel Millet-ek ipuinak kontatuko ditu liburutegian

**Datorren asteartean, apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, zenbait ekitaldi egingo dira Lasarte-Orian. Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri ikastetxeetan irakurketak egingo dituzte; Helduen Eskolako ikasleek XIII. Literatur Lehiaketako narrazioak irakurriko dituzte Manuel Lekuonan 16:15etan hasita, eta bestalde, haurrentzat ipuinak kontatuko ditu Ixabel Millet-ek Kamishibai teknikarekin 18:00etan, haur liburutegian.**

**A**pirilaren 23an ospatzen da Liburuaren Eguna mundu osoan, 1616an egun horretan Miguel de Cervantes, William Shakespeare eta Garcilaso de la Vega idazleak hil zirela gogoratuz.

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetan zenbait ekintza berezi egingo dituzte egun hau dela eta.

Sasoetan daukate egitaraurik oparoena. Goizeko 9:00etan hasiko dira ikasleei zein egun den azalduz eta hiru irakurketa egingo dituzte: "liburuaren eguna ospatzearen zergatia", "Haur liburuaren Nazioarteko Egunaren mezua", eta "On Kixote" liburuaren lerro batzuek.

Bestalde, goizean eta arratsaldean, txirrinak jotzen duenean egiten daudena utzi eta irakurtzen hasi beharko dute ikasleek. Gainera, eguerdiko



Kamishibai teknika darabil Ixabel Millet-ek ipuinak kontatzeko.

12:15ean, 3. zikloko ikasleek 1. eta 2. mailakoei ipuinak kontatuko dizkiete, Liburuaren Egunarekin lotutako eskulana egingo dituzte eta etxetik ekarritako liburuak trukatze txokoak jarri dituzte ikasle eta irakasleentzat.

## Sampedrori omenaldia

Bestalde, hil berria den Jose Luis Sampedrori omenez "La sonrisa etrusca" liburuiko pasarte batzuek eta Stéphane Hessel-en "Suminduak" liburuaren gaztelarazko bertsioan idatzi zuen hitzaurrea irakurriko dituzte.

Landaberri ikastolan, astean zehar, olerki eta ipuinak aukeratu eta irakurriko dituzte. Asteartean, 6. mailakoek egingo dituzte irakurketak 7-11 urte arteko ikasleentzat.

## HHIren Literatur Lehiaketa

Helduen Hezkuntza Iraunkor HHI eskolak urtero antolatzen du Literatur Lehiaketa Liburuaren Egunarekin batera eta XIII. Literatur Lehiaketa horretan aurkeztutako idatzietako batzuek, bihar, asteartea, Manuel Lekuonan egingo den

ekitaldian irakurriko dituzte.

Eskolako talde bakoitzak ikaskideen artean lan bat aukeratu du, gero taldea aterako dira oholtzara, eta testuaren egileak berak irakurriko du beste guztien aurrean. Aukeratuek oroigarri bana jasoko dute.

Irakurketen ondoren HHI eskolako ikasle bat omenduko dute, urtero bezala, bere adinarengatik, eskolan daraman urte kopuruarengatik edo egin duen ahaleginarengatik.

## Ipuin kontalaria

Hau guztiaz gain, Ixabel Millet ipuin kontalariak saio berezia egingo du haur liburutegian, 18:00etan, euskaraz, 6-8 urte arteko haurrentzat. Gurasoek kanpoan itxaron beharko dute.

"Kamishibai", Japonian XII. mendean budisten tenpluetan sortutako teknika erabiltzen du Ixabel Millet-ek ipuinak kontatzeko. Hitzek hitz japoniarrez "paperezko drama" esan nahi du. Teknikaren oinarria oso sinplea da. Ipuin kontalariak marrazkiak prest ditu eta orriak pasatuz kontatzen du ipuina.

## HITZALDIA

### Jon Maia emigrazioaz Semblanten

Ttakun kultura elkarteak antolatuta eta Udaberriko bertso saioari lotuta, hitzaldia eskainiko du Jon Maia bertsolariak Semblante Andaluz elkartearen gaztelaraz "Emigrazioetik bertsolarietara" 19:30ean.

"Hango eta hemengo" izango da maiatzaren 4ean egingo den udaberriko bertso saioaren izena eta horretarako guraso etorkinak dituzten bi bertsolariarekin kontatuko da Jon Maia eta Xabi Paiarekin. Biak erreferenteak dira euskal kulturaren "baina beraien gurasoen hizkuntza komunitateak ez du hori ezagutzen". "Sortzez familia eraldun batetik euskal kulturak duen kultur diziplina zailenetako batean txapeldu izateraino".

"Español kultura erasotzaile baten irudipean ikusi dugu beraiengandik datorren guztia eta ez da horrela" dio talde antolatzaileak "ezjakintasuna handia da baina jakin mina ere bai".

Hitzaldiaren bukaeran Semblanteko abesbatzak bi kanta eskainiko ditu. Itakunek hitzaldian parte hartzera gonbidatzen ditu herritarrak.

## UDAL MUSIKA ESKOLA

### Aurrematrikula egiteko garaia

Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolak apirilaren 29an irekiko du 2013-14 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea.

Haurrentzako txokoak, hizkuntza musikal, armonia, abesbatza, instrumentu ugari eta helduentzako taldea ere eskaintzen ditu herriko musika eskolak.

Plazaren eskaera egiteko unean, 40 euroko zenbatekoa kontuan kargatuko da, plaza-eskaeraren kontzeptupean, eta dagokion matrikula egiteko unean deduzituko zaio kopuru hori. Plaza baten eskabidea egin eta gero matrikula gauzatzen ez duenak ez du ordaindutakoa berreskuratzeko eskubiderik izango. Kultura sailak gogora arazten du, derrigorrezkoa dela aurrematrikula egitea plaza izateko.

Aurrematrikula Manuel Lekuonan egingo da 09:00etatik 13:00etara eta azken eguna maiatzaren 17a izango da.

## PSE-EE

### "Herria industri basamortu bihurtuko dute Bildu, EAJ eta Plataformak"

Lasarte-Oriako gobernuaren diren alderdiek garapen ekonomikoari eta enplegua sortzeari trabak jartzen diela salatu du PSE-EEK. "Teresategin industrialdea jartzeari uko eginga, Gobernu taldeak berriro ere apustu egin du gure herria logela-hiri bilakatzeko. Orain arte hartu den erabakirik larriena da, eta Lasarte-Orian enplegua sortzeari erabateko kolpea" salatu du PSE-EEK.

Herriaren etorkizunari atek ixtea leporatu die Bildu, EAJ eta Plataformari Jesus Zaballos PSE-EEren bozeramaileak: "Oso erabaki larria da, Lasarte-Oriaren ekonomi garapena eta ehundaka lanpostuen sorrera eragozten duelako".

Zaballosek adierazi duenez, "Lasarte-Oriak hedadura laburra du eta industrialdeak behar ditu. Beraz, harrigarria da udal agintean direnen etorkizun eskasia. Egun bizi dugun krisi larri garaian gure lurretan enpresak jartzeko eta lanpostuak sortzeko baldintzak bultzatu behar dituzte, oro har, erakundeek eta, bereziki, gure udalak".

## ERNAI

### Lasarte-Oriako Ernairen aurkezpena

Zukgua prozesua bukatuta Lizarran aurkeztu zen Ernai "Euskal Herriko gazte erakunde, feminista, sozialista eta independentista". Geroztik herri mailako taldeak osatzen joan dira eta Lasarte-Oriakoak egitarau berezia antolatu du aurkezpen modura.

Ostiralean apirilaren 26an, 18:30ean Gaztelekuan ekitaldi berezi bat egingo da eta apirilaren 27an, larunbata, 11:00etan, Gaztelekuan ere "Burujabetza praktikan" Auzolan taldearen eskutik hitzaldia egingo dute. Ondoren bazkaria egingo da, "bakoitzak etxetik eramana beharko du berea" eta ostean Venezuelako iraultzari buruzko dokumentala ikusteko aukera izango da.

Maiatzaren 1ean, berriz, 13:30ean Xirimirin aurkezpen bazkaria eta 17:00etan Okendon "egin zazu behar duzuna!" lelopean musika, malabareak eta abar egiteko aukera izango da. Antolakuntzako kideek ekintzetan parte hartzeko deia luzatzen diete herriko gazteei.



**"Zeeo, o ze!" antzerkia Jalgin.-** Ganorax taldeak aurkeztuta, "Zeeo, o ze!" antzerki emanaldia egin zen Jalgin ostiral iluntzean. Itxarongela batean girotuta, lau aktore gazte agertu ziren oholztan eta eurentariko bakoitzak nahi zuen bestearena zen zerbait. Giro horretan, laguntasunaz, bakardadeaz, joan diren momentuez etab. jardun zuten. Hori bai, umorez landu zituzten berez ilunak eta serioak diren gaiak eta ikusleek barre algararen bat edo beste botatzeko aukera ere izan zuten.

# Hiztuna aktibatzea xede, Udaltop-en

Ostegun eta ostiralean egingo da Udal Euskara Zerbitzuen V. Topaketa Manuel Lekuonan

**Apirilaren 25 eta 26an egingo da V. Udaltop jardunaldia Manuel Lekuona kultur-etxean. Urtero antolatzen ditu Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuak, Udalek arlo horretan egiten duten lana hobetzeko helburuarekin eta "Nola aktibatu herritarrak udalarekin euskaraz jarduteko? Zer eta nola egin, euskaraz ikus gaitzaten" da aurten gaia. Euskararen inguruan lan egiten duten hainbat adituk parte hartuko du Udal Euskara zerbitzuan V. Topaketa honetan eta amaieran sailatuko dira denen artean ondorioak ateratzeko Udalarekin herritarren harremana sarriago euskaraz izan dadin.**

Udaltop Euskara Zerbitzuen Topaketan ikuspegi teorikoa lantzen duten ekarpenak izango dira, eta, baita zenbait esperientzien azalpenak ere, Iñaki Arruti Euskara Zerbitzuko buruak adierazi duenez.

Hitzaldiak emango dituzte, besteak beste, Kataluniako Plataforma per la Llenguak Marc Bioscak, EHUko Eduardo Apodaka irakasleak eta Goiena-ko Iban Arantzabal-ek.

Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuak beste erakunde batzuekin batera antolatzen duen topaketa honetan, Udal Zerbitzu horretako Aitor Unanuek bi hitzaldi emango ditu: Marifer Gorostiza lankidearekin, "Jendaurreko langileak erakusten du herritarrak hizkuntza nola dantzatu" gaiaren inguruan ostiralean goizeko 10:00etan, eta Karlos Altuna kirol zerbitzuko arduradunarekin, "Kirol ikastaroetan euskarari txanda emanez, deportibitatez" ostegunean, 17:20ean hasita.

Hitzaldi horretan Altunak eta Unanuek Kiroldegiko ikas-

taoak euskalduntzeko programa aurkeztuko dute.

Euskara Zerbitzuetan lanean ari direnen zalantza eta asmoak trukatzeko gogoarren ondorioz sortu zen Udaltop 2009an. Aurtengoa bosgarrena izango da, beraz.



Aitor Unanue eta Marifer Gorostizak jendaurreko langileen hizkuntz ohiturek duten eragina aztertuko dute ostiral goizeko hitzaldian.

## V. Udaltop Topaketaren egitaraua

### Osteguna 25

- 09:45: Euskaraz jarduteko aktibazioa: ideia zenbait psikologia sozialetik  
**Eduardo Apodaka** (EHU)
- 10:45: Udaletako hizkuntza errolden esperientziak  
**Kristina Pavo** (Emun)
- 11:30: Atsedaldia
- 12:00: Udal Politika Feminismoz bustitzen  
**Maite Barreña** (Arrasateko Udala)
- 12:30: Udalak euskaraz eta... zuzkeratik ez?  
**Bittor Zarrabeitia** eta **Karlos Gorriño** (Gernika-Lumoko Udala)

- 13:30: Bazkaria
- 15:30: Zelan aktibatu udalak herritarrekin euskaraz jarduteko  
**Iban Arantzabal** (Goiena Komunikazio Taldea)
- 16:30: Gureaz Blai! Euskaldunak aktibatzeke irratiaioa  
**Nekane Zinkunegi, Maite Bidarte** eta **Ainhoa Lasa** (Info7)
- 16:50: Badakizue kontratazio publikoak ze garrantzi duen gure erakundearen egitekoan?  
**Maite Ebaniz** (Zarauzko Udala) eta **Aitziber Arnaiz** (Oiarzungo Udala)

- 17:20: Kirol ikastaroetan euskarari txanda emanez, deportibitatez  
**Karlos Altuna** eta **Aitor Unanue** (Lasarte-Oriako Udala)

### Ostirala 26

- 09:00: Autoformació i gestió lingüística: una experiència pràctica per a les Administracions públiques  
**Marc Biosca** (Plataforma per la Llengua)
- 10:00: Jendaurreko langileak erakusten du herritarrak hizkuntza nola dantzatu  
**Marifer Gorostiza** eta

- Aitor Unanue** (Lasarte-Oriako Udala)
- 10:30: Udalarekin euskaraz(z), zelan? Herritarrak aktibatzeke gakoak  
**Nerea Zubia** eta **Maddi Etxebarria** (Elhuyar Aholkularitza)
- 11:15: Atsedaldia
- 11:45: Talde-lana: Nola aktibatu herritarrak udalarekin euskaraz jarduteko? Zer eta nola egin, euskaraz ikus gaitzaten?  
**Koordinatzailea: Udal-ekin**
- 13:30: Topaketen ebaluazioa, jarraipena eta amaiera
- 13:45: Kultur ekintza
- 14:00: Bazkaria

## I. Dantza Topaketa ospatuko da

Lasarte-Oriako I. Dantza Topaketak aurkeztu ziren ostegunean Manuel Lekuona kultur-etxean. Kukukako dantza irakasle eta arduradunak eta Ana Remiro Donostiako Udal Musika eta Dantza eskolako irakaslea izan ziren agerraldian.

Prentsaurrekoan azaldu duten legez, emanaldia apirilaren 27an, 12:00etan izango, Manuel Lekuona kultur etxean. Sarrera 2 eurokoa izango da.

### Asmoak

Topaketa hauek dantzaren nazioarteko egunari lotuak daudela azaldu zuen Maider Oiarzabal Kukukako dantza irakasleak. "Lehenengoz eta aurrerantzean, Lasarte-Oriako egun hau ospatzeko asmoa dugu".

Era berean, beste helburu bat ere badutela azaldu zuen, taldea amateurren zirkuitua egi-

te. "Taldea amateurrek ere, profesionalen antzera, haien zirkuitua izateko eskubidea dute". Honetaz gain, zirkuitu honekin eskolen arteko elkar ezagutzea eta harremana sustatu nahi da, "ez izatea dantzatzea eta listo, talde kideak haien artean harremana izatea".

### Estiloak

Gauzak honela, Lasarte-Oriako I. Topaketetan bi talde gonbidatu egongo direla azaldu zuten, Kukukako gazte-formakuntza eta Donostiako Udal Musika eta Dantza eskola.

Ana Remiro Donostiako Udal Musika eta Dantza eskolako irakasleak aipatu duenez, "duela bi urte hitz egin genuen lehenengoz Maider eta biok zirkuitu honi buruz. Guretzako aberasgarria da. Izan ere, ikasleei eszenatokira igotzeko aukera ematen baitzaie".

Honetaz gain, Topaketetan estilo ezberdinak ikusteko aukera izango da, dantza garaikidea, euskal dantza sorkuntza eta euskal dantza.

### Dantzaren eguna

Bestalde, apirilaren 29an, Dantzaren nazioarteko egunean bertan, Kukukak Okendo plazan, 18:00etan ekintza bat egingo duela ere jakitera eman du. Ekintza zabala eta irekia izango da haien hitzen arabera eta mugimenduetan zer ikusia izango du. "Eskolako eresia ere dantzatuko dugu".

Eskolak herritarrak gonbidatzen ditu ekintzetan parte hartzera. "Haur eta heldu. Guztiak dute dantza egiteko eskubidea". Eta dantza eguneko ekimenean dantzatu nahi duenak Kukuka eskolako kamiseta edo kamiseta berdea eramatea eskatzen dute.





# REFORMAS

Javier Lasa

Tfnoa 688618596

xabilasa@euskaltel.net

**Konpromezurik gabeko aurrekontuak**

**Konponketak**

**Bainontzi aldatzea**

**Sukaldeak**

**Komunak**

Presupuestos sin compromiso

Pequeñas Reparaciones

Sustitución de Bañeras

Cocinas Baños

# Emigraziotik Bertsolaritzara

Desde la  
emigración al  
Bersolarismo

Jon Maiaren  
**HITZALDIA**  
gazteleraz

CHARLA  
de Jon Maia  
en castellano



Eguna / Día:  
**Apirilak 26** de abril

Tokia / Lugar:  
**Asociación Semblante Andaluz**

Ordua: **19:30**etan

ANTOLATZAILEAK



## Maiatzean ere...



### “Hara eta hemengo” bertso-saioa

MAIATZAK 4, 22:00ETAN  
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN

BERTSOLARIAK ANDONI EGAÑA  
XABI PAYA  
JON MAIA  
ANE LABAKA  
UNAI MUÑOZA

HERRIKO ELKARTEEK parte hartuko dute. MUSIKA,  
DANTZA,... izango dira. Eta gainera, XABI PAYAK BAT-  
BATEKO ITZULPENA egingo du, PANTAILA ERRALDOIAN  
BERTSOAK GAZTELANIAZ JASOKO DIRA!!!!!!

SARRERAK MANUEL LEKUONAN  
ETA LASARTEORIASAREAN!!!



### Amaraun jaialdia

Aurten ere, AMARAUN KLUBEKO JAIALDIA ospatuko da maiatzaren 4ean, OKENDO PLAZAN. Herriko gaztetxoek, 3 eta 8 urte artekoek parte hartu ahaliko dute eta Gazte Klubeko gazteak laguntzaile modura.

11:00etatik 13:30etara eta 15:30etik 18:00etara puzgarriak eta tailer desberdinak (Globoflexia, pulterak, hankapaloak, trentzak, ...) egongo dira.

Bazkal aurretik, 13:00etan, Buruhandien txanda izango da eta 13:30ean, Amaraun klubeko bazkideek bazkari bereziaz gozatu ahaliko dute.

Arratsaldean, 17:30ean, Gazte Klubekoek Bingo antolatuko dute eta 18:00etan, iaz arrakasta handia izan zuen, Mozorroen desfilea. Jaialdia amaitzeko, 18:30ean, “Mugi Mugi” dantzaldia eta txokolate jana izango dira.



### Azkorteko erromeria

Eta maiatzaren 5ean, AZKORTEKO ERROMERIA izango da. Ohiturari jarraituz, Lasarte-Oriako herrietarek Santa Krutz eguna ospatzeko Azkorteko ermitara erromeria egiten dute.

11:00ETAN, HERRI MEZA  
Alboka Abesbatza eta Amalur trikiti eta pandero eskolakoek partehartzea

12:30EAN, HERRI KIROLAK  
BERTSOLARIAK

ETA ERROMERIA!!!!

Amalur trikiti eta pandero eskolakoek giro ederra jarriko dute ohiturazko esukal doinuak eskainiz.

## PILOTA.-

## Intzako seniorrek Udaberriko Sariari ekin diote, lau t'erdian

San Pedrotako heldu eta gaztetxoek pilota txapelketetarako izena ematea ireki da

**Intzako pilotarien denboraldia aurrera doa eta Herriartekoa iritsi bitartean, lau t'erdikoan egin zuten debuta, Udaberriko Sariari. Intzako Jon Pello Artetxe eta Aitor Aranburu aritu ziren lehian, baina ez bata ez besteak ezin izan zituzten aurkariak garaitu. Bestalde, azken urtetan bezala gaztetxo eta helduek jokatu dute Intzak antolatutako San Pedro jaietako txapelketetan.**

## TXINTXARRI

**P**ilota denboraldia aurrera doa pixkanaka-pixkanaka eta Intzako pilotariak Udaberriko Sariari ekin diote Herriarteko txapelketa jomuga dutela betiere.

Larunbatean, infantilen lehen jardunaldia behar zuena bertan behera geratu zen Hernani 3 taldea txapelketatik erretiratu egin delako, ondorioz, hurrengo astean ekingo diote Udaberriko errendimendu txapelketari Intzako gaztetxoek.

## Seniorrak lau t'erdian

Seniorren kasuan gauzak ez ziren ongi atera lehen partiduan. Jon Pello Artetxe herritarrek galdu egin zuten Udaberri Sariko 4 t'erdiko estreinako norgehiagoka Antiguoko Julen Iribarren aurka. Hasieratik bukaerara donostiarra nagusitu zen jokoa, eta azken markagailuan islatu zen hori, 22-5 hartu baitzuen mendean pilotari gazte lasarteoiarrak.

Bigarren partiduan Aitor Aranburu aritu zen lanean Intzako elastikoa defendatzen, eta honek gauzak zail jarri zizkion Real Sociedadeko Aitor Odriozolari, azkenean donostiarraren aurrean amore eman behar izan arren, 22-18.

Jose Felix Solano prestatzaileak azaldutakoaren arabera, partidu "fisikoa, gogorra eta berdindua" izan zen, markagailuan parekatuta joan ziren bi pilotariak harik eta Odriozolak lau bat tanto jarraian egitea lortu zuen arte. Hortik aurrera gauzak zail jarri zitzaizkion Intzako pilotariari, baina ez zuen amore eman eta azken hatseraino jarraitu zuen borrokan.

Hala ere, Solanok esan du txapelketa hau batez ere Herriartekoa prestatzeko erabiliko dutela: "Ez daukagu inolako helburu argirik lau t'erdian, jokatu, partiduak pilatu eta pixkanaka Herriarteko txapelketari begira sasoi puntua hartzea, besterik ez".



Aitor Aranburu pilota astintzeko zorian Jose Felix Solano Intzako prestatzailearen begiradapean.

## San Pedroko lehiaketa

Bestalde, aurren ere San Pedro jaietan pilota txapelketako finalak ikusteko aukera izango da. Eta azken urteetan bezala, gaztetxo eta helduek jokatu dute Intza K.E.-k antolatutako San Pedro jaietako txapelketetan.

Benjamin, alebin eta infantilei zuzendutako San Pedro Jaietako XXI. Txapelketan 1999 eta 2004. urte artean jaiotako Lasarte Oriako gaztetxoek parte hartu dezakete.

Era berean, Lasarte-Oriako elkarteak beteranoren III. Eskuz binakako txapelketa herrikoia ere prestatu du.

Hau ere, herriko pilotariarentzat da soilik eta 1977 urtean edo aurretik jaiotakoek parte hartu ahalko dute.

Partiduak 22 tantura eta pilota goxurekin jokatu dira.

## Arauk

Bi txapelketetako partiduak Loidi-Barreneko frontoian jokatu dira larunbat eta igande goizetan.

Antolakuntzak jakinarazten duenez, derrigorrezkoa da kirola egiteko arroparekin jokatea; finalerdiak eta finalak, aldiz, kamiseta eta galtza zuriarekin jokatu beharko dira.

## Izena ematea

Gaztetxoek txapelketa izena emateko astearte edo ostegunetan 18:30etatik 20:00etara Michelingo frontoira hurbildu behar dira txapelketetan parte hartzeko interesa dutenak eta Peio Sarasolagatik galdetu behar dute.

Izena emateko azken eguna apirilaren 30a da. Eta antolakuntzak azpimarratzen du, ez dela inskripzioik onartuko epetik at.

Beteranoren txapelketari dagokionez, honetan parte hartu edo informazio gehiago eskuratu nahi duenak 657 770 318 zenbakira deitu behar du.

## IGERIKETA.-

## Martin bigarren Bidasoako jaisieran

**B**uruntzaldea IKT-ko igerilariak igerilekuan izan ohi dituzte lehiaketak, baina badaude taldeko zenbait igerilari itsaso zeharkaldi edo ibai jaisieretan parte hartzen dutenak. Horietako bat Juan Vicente Martin masterra dugu.

Lehen igandean, apirilaren 14ean, Bidasoa ibaiko XLIV jaisieran parte hartu Juan Vicentek eta bigarren izan zen bere mailan. Proba "oso gustura, sentsazio onekin eta gehiagorako gogoz" amaitu zuela aipatu digu herriko igerilariak.

Buruntzalde IKT-ko entrenatzaileak Borja Apeztegiak azaldu digunez, Juanvik proba motzean parte hartu zuen 7,5 kilometrotakoan.



Juan Vicente Martin Bidasoako jaisieran bigarren izan zen.

BURUNTZALDEA IKT

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak Faisaien irlatik Hondarribiako porturaino ibilbidea egin behar izan zuen eta "emaitza paregabea" lortu zuen, bere mailan bigarren izan zen eta sailkapen nagusian, hirugarren.

Apeztegiak aipatu duenez, "aurreko urteko postuak berdindu bazituen ere, aurtengo edizioan iaz baino azkarrago ibili zen Juanvik. Igandean, 7,5 kilometroak 47 minutu eta 38 segundutan egitea lortu zuen, iaz baino 6 minutu azkarrago".

## ATLETISMOA.-

## Gomez eta Civicos Sudur Kroseko podiumean

Lehen igandean, herriko korrikalariak hainbat probatan parte hartu zuten, baina bitan, Egiako sudur krosea eta Berako mendi lasterketan aurrean izan ziren lasarteoiarrak.

Larunbatean, apirilaren 13an, Sudur kroza lasterketa burutu zuen Donostiako Cristina-enea parkean. Honetan Raul Gomez Margallo eta Nieves Civicos lehengo hiruen artean iritsi ziren helmugara. Zehazki Raul bigarren izan zen eta Nieves, berriz, hirugarren.

Igandean, berriz, Berako Mendi lasterketan Endika Gartzia bosgarren izan zen. Honetaz gain, beste herritar batzuk ere izan zen proban. Beheko argazkian Ostadar SKT-ko taldea.



JOSEBA IPARRAGIRRE

# Agenda

Asteartea 23, Lasarte-Oria



## Liburuaren eguna

Gure herriko hainbat txokotan libururen eguna ospatuko da. Lasarte-Oriako isaktetxeetan ekintzak egingo dira. Sasoeta-Zumaburu eta Landaberi ikastoletan irakurketak egingo dituzte. Arratsaldean, 16:15ak aldera, Helduen Eskolako ikasleek XIII. Literatur Lehiaketako narrazioen irakurketa egingo dute Manuel Lekuona kulturetxean eta haur liburutegian, 18:00etatik aurrera, Ixabel Millet ipuin-kontalaria izango da.

## Hitzaldia

**SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEAN**  
**Ostirala 26, 19:30ean**

Jon Maia bertsolariak "Emigraziotik bertsolaritara" hitzaldia eskainiko du. Gaztelaniaz. Ttakun K.E. antolatua



## Dantzaren eguna

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Larunbata 27, 12:00etan**

Kukuka antzerki eta dantza eskolak Lasarte-Oriako I. Dantza Topaketa antolatu du. Donostiako Udala Musika eta Dantza eskola eta Kukai gazte-formakuntza taldea izango dira Kukukako taldeekin batera. Sarrera, 2 euro.

## Lasarte-Oria

### Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Igandea 28, 17:00etan**

Haurren zinea atalean, "Lili, la princesa y el unicornio" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro.



## Balioetan Hezi

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Astelehena 22, 19:30ean**

Izaskun Andonegi erizain eta Bidegin elkarteak sortzaileak BIDEGIN proiektuari buruz hitz egingo du. Ainara Elizetxea herritarren bizipena ere entzun ahaliko da. Gaztelaniaz.

**Asteartea 23, 19:30ean**

"Acompañando en el final de la vida" hitzaldia eskainiko du Izaskun Andonegik.

**Asteazkena 24, 19:30ean**

"Cómo hablar y acompañar a los niños y adolescentes en el proceso del morir" hitzaldia izango da entzungai. Hizlaria Mila Arce haurren erizain psikiatra.



## Erakusketa

**JALGI KAFE ANTZOKIAN**  
**Apirila bukaera arte**

Mundu bat GKE eta Euskal Herriko nekazaien elkartasuna elkarteak antolatuta, "Emakume nekazariak. Eskubide eta errealitateak" argazki erakusketa ikusgai izango da.

## OKENDO PLAZA

**Astelehena 29, 18:00etan**

Kukuka antzerki eta dantza eskolak Dantzaren eguna ospatuko du. Adin guztietako parte hartu ahaliko dute.

## Usurbil

### Hitzaldi sorta

**SUTEGI KULTUR-ETXEA**

**Asteazkena 24 - Ostirala 26, 19:00etan**

Independentziarako ibilbide orria hitzaldi zikloa. Nafarrak kultur taldeak antolatuta

# Herritarren txokoa

## Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan apirilaren 29an, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta!

## Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da apirilaren 24an, asteazkena, arratsaldeko 17:00etan.

## Herritarren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, apirilaren 26an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

## Udan begirale izateko

Udako Txokoak egitasmoan edo udaleku itxietan, uztailea eta abuztuaz, begirale izan nahi duten gazteek orain dute aukera izena emateko.

Begirale izateko baldintza bakarrak 18 urte baino gehiago izatea eta euskaraz komunikatzeko gai izatea dira.

Honetarako zenbait bide dituzte interesatuek: mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera edo Ttakunekin bulegotik, Geltoki kale 4 zenbakitik, pasa daitezke. Azken eguna maiatzaren 8a da.

## Alboka Abesbatzaren Batzar Orokorra

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, gaur, apirilaren 22, urteroko batzar orokorra egingo duela Arantzazuko Amabirjinaren eliza azpiko lokalean.

Lehenengo deialdia 19:30etan izango da eta bigarrena 20:00etan. Bazkide eta abeslariak erregutzen zaie puntual iristea.

## Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru ordu-lari, bost betaurreko graduatu, patinete bat, bi mugikor, haur baten berokia eta motxila bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte Udaltzainen Bulegoan, goizez 09:00etatik 13:00etara.

# Sarean

## Izparringia, albisteak umorez kontatuta



Euskal Herriko albisteak, munduari, politikari edo kirolari buruzkoak... hauek guztiak euskaraz eta era umoretsuan aztertzen dituen orainkaria jarri da martxan sarean, Izparringia, Albisteak o setan sabis?.

Izparringia.net orrialdean nahi duen orok argitaratu dezake nahi duen berri, albiste, artikulua, dokumentu, bideo edo dena delakoa eta ez du zertan bat etorri behar errealitatearekin. Esate baterako, Ratzinger Aita Santu ohia Euskal Herrira erretiratu dela edo Espainian gramatika eta ortografia errespetatzen dituztenak Twitterretik botako dituztela irakurri daiteke bertan.

Izparringian bere albiste umoretsua ikusi nahi dutenek artikulua izparringia@gmail.com helbidera bidali besterik ez dute, izena zehaztuz.

Hala ere, badirua baldintza batzuk arduradunek haien orrialdean zehazten dutenez, sarrera bakoitzean esandakoaren erantzukizuna sortzailearena da bakar-bakarrik, ez dute pertsonaia publiko ez direnekiko errespetu-urratzerik onartuko, ezta irainak ere.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Leire Izagirre eta Mikel Artola Harakinak

# “Kalitatea lehentasuna da”

Bihar harategitik gerturatzen direnei urdaiazpikoa eta gazta eskainiko diete

**Mikel Artola eta Leire Izagirre dira apirilaren 8tik Jaizkibel plazan kokatuta dagoen Juan Mari harategiko aurpegi berriak. Bikotea gazte hau beti aritu da harategien esparruan lan egiten eta orain, Leirek semearekin bi urte eskaini ostean, erronka berri bati ekin diote elkarrekin Lasarte-Orian. Aspaldiko nahia gauzatu dute eta baikor azaltzen dira. Momentuz bezeroek egin-dako harrerarekin oso pozik daude.**

Maider AZURMENDI

**M**ikel Lizartzakoa da eta Leire donostiarra, bikotea beti aritu da harategien esparruan lan egiten eta orain, Leirek semearekin bi urte eskaini ostean, erronka berri bati ekin diote Lasarte-Orian Juan Mari harategiko moztadorearen atzean. Bikoteak azaltzen duenez, Juan Mari harategiko jabeak, osasun arazoak medio ordezkapena bilatu nahi izan du bere negozioak jarraipena izan dezan. Ezagun baten bitartez Mikel eta Leire ezagutu zituen eta hauek dira harategia zabalik mantenduko dutenek “dena ondo bidean”.

## Nolatan Juan Mari harategia hartzeko erabakia?

Nik urdaiazpikoa jotatxeetan eta harategietan saltzen nituen, oraindik enpresa daukat eta hauek prestatzeaz gain, hau da, hezurra kendu eta lontxeatzeaz gain, ezkontza eta ekitaldi berezietan urdaiazpikoa moztzen dut. Leirek Usurbilgo harategi batean lan egiten zuen eta umea eduki ondoren, bi urte egon da txikiarekin.

Orain biak harategi munduan ibilitakoak ginenez, bat hartzeko gogoarekin genbiltzan, lan ordutegi finkoagoak eduki eta haurraren ondo moldatu ahal izateko. Ezagun baten bitartez Juan Mari harategia uztekoan edo zebilela jakin genuen. Bere egoera azaldu eta lekukoa hartzera

animatu ginen. Lasarte-Oria herri ona iruditu zitzaigun.

## Noiztik moztadorearen atzean?

Aste Santua ondoren hasi ginen lanean, apirilaren 8an. Salmentak momentuz lasai joan dira, mugimendua batez ere ostiral eta larunbatetan nabaritzen dugu eta ezin kexatu. Juan Mariren betiko bezeroak etortzen zaizkigu.

Badakigu ez dela garai onena negozio batean lehen pausua emateko. Krisia dela eta jendea ahalik eta gastu gutxien egiten saiatzen da baina hala ere, salmentak esan bezala ondo doaz eta pozik gaude. Espero dugu garai zailak pasata berriz ere denentzat garai hobekak iristea, ikusiko da baina momentuz baikorrak gara. Proiektu berriei ekiteko garai ona ere badela iruditzen zaigu.

## Eskaintzan zerbait aldatu al duzue?

Urdaiazpikoa eskaintza berezia da, Salamancatik ekartzen dugu eta nik neuk prestatzen dut salmentarako.

Horretaz gain, Leirek zeliakoentzat hanburgesak prestatzen ditu, solomoa eta saltxitak hemen adobatzen hasiko gara, Juan Mari egiten zuen bezala, eta odolki betetako piperrak ere egiten ditugu batez ere astebukaerara begira. Hemen, Euskal Herri mailan, agian ez da ohikoena eta guk salgai izaten dugu ere txerrikumea eta antxumea.



Leire eta Mikel pozik daude hartutako erronkarekin, Mikelek ez du urdaiazpiko mozketa utziko eta bi lanak uztartuko ditu.

Salamancatik ekartzen digu hornitzaile batek eta bezeroek ondo hartzen dute haragi hau eskura izatea.

Gauza bereziak ditugunean kanpoan, arbelan, jartzen dugu bezeroek jakin dezaten. Aipatutakoaz gain gauza gehiago egiteko asmoa dugu, Valladolidetik ekarritako ardi gazta dugu salgai. Zapora desberdina du eta bezeroak hau probatzera animatzen ditut.

## Gainontzean betiko haragia aurki dezakete bezeroek?

Bai, Juan Mari zekukan haragia, hau da berak ekartzen zuen berdina. Kalitatezko haragia izan da Juan Mari beti saldu duena eta guk berdina hartzen jarraitzen dugu, betiko bezeroak lasai egon daitezela, ohiko haragia erosten jarrai dezaketelako, ona.

Haragiaren kalitatea lehentasuna da guretzat. Oso pozik gaude eskaintzen dugun haragiarekin eta orokorrean harategian ditugun pro-

duktu guztiekin. Prezioari begirata, eskaintza orekatua egiten dugula iruditzen zait.

## Mikel urdaiazpikoa nola moztzen duzun erakutsiko al duzu?

Nik uste dut tarteke bezeroen aurrean moztuko dudala, asteartean, apirilak 23, goizean 10:30 eta 12:30 bitartean eta 17:30 eta 19:30 artean urdaiazpikoa moztu eta gaztarekin bezeroek probatzeko aukera izango dute. Bizilagunak gu ezagutzera animatu nahi ditugu, denak gonbidatuta daude.

## Nolatan hasi zinen urdaiazpikoa moztzen?

Jatetxe ezberdinekin harremana daukat urdaiazpikoa saltzen dizkiedalako eta halako batean duela bost urte inguru, ezkontza bateko luntxean moztuko nuen galdetu zidaten. Nik ez nekien nola egiten zen eta hasieran nik urdaiazpikoa jarri eta moztzen zekien pertsona bat eramaten nuen baina gerora nik ikasi nuen,

bakarrak, profesionalek euren trukoak eta ez dituztelako erakutsi nahi izaten. Horrela iaz adibidez 40 ezkontzatan egon nintzen.

Produktuak eta urdaiazpiko mozketa kontratatzeko datuak kozasa.com da webgunean aurki daiteke. Bertan dagoeneko produktuak Juan Mari harategian salgai daudela azaltzen dut.

## Zerbaitek bereziki harritu zaituzte egun hauetan...

Bai lehenengo egunetik harritu gintuen uste baino euskaldun gehiago zegoela Lasarte-Orian! Bezero dexente euskaraz etorri zaizkigu eta oso pozgarria izan da.

## Zer esan bezeroei zuek ezagutzera gerturatzeko?

Ba oso ondo tratatuko ditugula, biak euskaldunak gara bera euskaraz lasai etortzeko eta eskaintza ona eta kalitatezkoa aurkituko dutela beti bezala, hori bai, produktu berri batzuekin.

## Juan Mari HARATEGI-URDAITEGI

**Zerbitzu ona, betiko haragi berezia  
... orain, Mikel Artola eta Leire Izagirrerekin**



Jaizkibel plaza 11 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 365156

